

DIRU-SARRERAK

Gure enpresaren oinarrizko diru-sarrera lokalizatzaileen salmenta izango da. Ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango dira, produktua behin erosiko baitute eta ez epeetan banatuta. Gure produktua 25€tan ezarriko dugu, nahiz eta beheraldiak ere aprobeztatuko ditugun prezioak jeitsi eta erosle gehiagorengana iristeko. Honetaz gain, Urola Kostako udal elkarteak eskaintzen dituen diru-laguntzetaz baliatuko gara proiektua martxan jartzerakoan.

Ehunekoez hitz egitean, hasieran enpresa martxan jarri aurretik, gure enpresa sozietate bat denez, gutxieneko inbertsio bat egin beharko dugu, Urola Kostako udal elkarteak eskaintzen duen diru-laguntzaz eta ahal izanez gero Eusko Jaurlaritzak ekintzaile gazte berriei ematen dienarekin baliatzen saiatuko gara. Hauei esker egin beharreko inbertsioaren %40a lortzea iritsiko ginateke. Gutxigorabehera enpresaren kostu totala 6000€koa dela kalkulatu dugu.

Bestalde, diru guztia biltzeko gai ez bagara, crowdfunding edo antzeko ekintzaren bat egitea izango litzateke aukeretako bat, (beti ere lehen aipatutako ekintzekin nahikoa diru lortzen ez bada). Gainera, honen bidez gure proiektuan zenbat pertsona interesatuta dauden neurtzeko modu interesgarria eta erraza izango litzateke.